

2018/2019 IKASTURTEKO ZAINZA ZERBITZUKO ARAUDIA:

1. Eskolako gela egoki batean izango da, horrela adostu da eskolarekin.
2. Hiru ikasle mota egongo dira:
 - a. Ohikoak: hilean 20 egun edo gehiago egongo direnak.
 - b. Tartekoak: hilean 10 egun edo gehiago egongo direnak
 - c. Aldizkakoak: hilean 10 egun baino gutxiagoko erabilpena egingo dutenak.
3. Zerbitzuak 2 aukera eskainiko ditu:
 - a. 7:30-9:00tara (luzea)
 - b. 8:30-9:00tara (laburra)
4. Zaintza zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tarifak hauek izango dira erabileraren arabera:

	7:30-9:00 (luzea)			8:30-9:00 (laburra)		
	ARTEKO ZERBITZUA			ARTEKO ZERBITZUA		
	1 seme/alaba	2. seme-alabak	3 seme-alabak	1 seme-alabak	2. seme-alabak	3. seme-alabak
OHIKOAK	75 €	60 €	50 €	50 €	40 €	25 €
TARTEKOAK	5 €			3 €		
ALDIZKAKOAK	7 €			5 €		

5. Ohikoetan hiruhileko ordainketak egingo dira hasieran, aldizkako bi kasuetan hilero eta bukaeran, erabileraren arabera.
6. Anai arrebak izena ematerakoan deskontuak egongo dira, adibidez:
 - a. Ohikoetan (luzean) eta anai - arreben kasuan, lehen anaiak 75 € ordainduko ditu, bigarrenak 60 € eta hirugarren bat egongo balitz 50 € ordainduko luke. Aldizkako bi kasuetan ez da deskonturik izango.
 - b. Ohikoetan (laburrean): 50€, 40€ eta 25€ ordaindu beharko ditu anai bakoitzak.
7. Zaintza lehen aldiz erabiltzerakoan (edozein ikaslek), horretarako prestaturik dagoen inprimakia beteta ekartzea ezinbestekoa izango da, bertan bankuko zenbakia agertu beharko duelarik ordainketak egin ahal izateko.
8. Izen ematea Guraso Elkartearen bitartez egin beharko da eta tarteko eta aldizkako kasuetan gutxienez aurreko egunean, tutoreari abisatuaz.
9. Ez da onartuko gaixorik dagoen umerik ezta botikarik emango inolako kasuetan zaintzan dauden bitartean.
10. Momentu puntual bezala, arrazoituta, egunean bertan ikasleak onartuak izango dira. Ikasle batek honelako erabilpen desegokia egingo balu egun jarraietan, hilabeteko zerbitzu osoa ordaindu beharko du.